

# PLAZABERRI

2025eko ekaina

## Zizurkilgo berriak laburrean

---

### Alkatearekin

Egindakoei buruz  
solasean

---

### Ongi etorri Zizurkilera

Harrera programa



# Plazaberri bueltan da!

Irudi berrituarekin eta indarberrituta dator aldizkaria, aro berri bati ekiteko prest. Herriko berriak, udal ekimenak, eguneroko jarduerak... gertutik jaso eta herritarrengana hurbiltzea izango du helburu.

Aldian-aldian iritsiko da Plazaberri zuen etxeetara, Zizurkilgo udal jardueren, proiektuen eta egunerokoaren berri emateko asmoz.

Plazaberri vuelve con nueva imagen y energía renovada para acercar a la ciudadanía las noticias del municipio, las iniciativas del Ayuntamiento y la actividad diaria de Zizurkil.

## Hobekuntzak herrian



Ugareko helduen parkea eraberritzea 5.811 €



Pagamuñoko igogailura doan pasarelaren errefortzua 4.779 €



Aristegiko jolas-parkea, argiteria eta altzariak berritzea 26.129 €



Fraisoroko urak bideratzea 27.737,86 €



San Millan elizarako sarreran arrapala jartzea 1.790 €



Teodoro Hernandorenako aparkalekuak kendu eta Buztinbailaran birkokatzea 35.029 €



Zimiterioko teilatua berritzea 21.208 €



Postontzi berria herrigunean 2.218 €



Argiteria publiko berria, LED teknologiarekin 22.073 €



Intxaur frontoiko mantenu lanak 2.489 €



Lurreko seinaleak margotzea Ugaren 4.800 €



Kuttuna haurreskolako jolas-parkea berritzea 33.892 €



Herriko seinalizazioa 895 €



Azken Portu urbanizatzeko lanak bultzatzea



Kirol instalazioetako hobekuntzak 37.025 €



Herri bideen konponketak 37.526 €

# Legealdia laburrean

## Maite Amenabar

Alkatea

### Legegintzaldi erdia igaro da. Nola baloratzen duzu orain arteko jarduna?

Balorazioa oso positiboa da. Egia da aurreko bi legealdietan ere zinegotzi izan nintzela, baina alkate izateak ardua handiagoa dakar. Hasierako "txikitasun" sententzia gaituta, segurtasunez eta eroso sentitzen naiz.

### Kanpaina konpromiso batzuk hartu zenituzten 2023-2027 legealdian gauzatzeko. Zein da plan estrategikoan jasotako proiektuen betearazte-maila?

Legealdiaren helburuak argi finkatu genituen, herritarrek kontuan hartuta. Aurreikusitakoa betetzeko lanean ari gara. Egindako lana handia izan da, erritmo onean goaz.

### Zeintzuk dira orain arte nabarmenduko zenituzkeen proiektuak?

Asko dira. Aristegi, Ugare eta Kuttunako parkeak berritu ditugu. Haurrek espazio seguruak izatea lehenetsi dugu. Herrigunean, aparkaleku berriak sortu dira Buztinbailaran, eta Teodoro Hernandorena kalekoak bertara bideratu dira segurtasuna hobetzeko. Fraisoro inguruko uren arazoa ere konpondu dugu eta herri-bideak pixkanaka hobetzen ari gara, bizilagun gehienei eragiten dieten guneen lehentasuna emanez.

Bestalde, komunikazioan jauzi kualitatiboa egin dugu: webgune berria martxan da, sare sozialen erabilera zabaldu dugu eta "Zer Ote" digitalizatzeko urratsa eman dugu, 0 zabor helburuarekin bat egiteko. Dena den, teknologiarako sarbiderik ez duten herritarrentzat informazioa eskuragarri dago udal eraikinetan, informazioa guztien eskura egon dadin.



### Saihesbidearen azua urte luzetakoa da eta zuon erronka nagusietariko. Zein egoeratan dago proiektua? Nolakoa da harremana Foru Aldundiarekin?

Urte luzetako borroka izaten ari da, ez dugu inoiz etsi. Argi dugu saihsbidea benetan beharrezkoa dela, eta eguneroko errealitateak berak erakusten digu hori: Zizurkilgo herria zeharkatzen duen errepidea da, eta trafiko handia jasaten du. Asteaz zehar 13.000 ibilgailu pasatzen dira Elbarrenatik, horietatik asko astunak.

2023an bilerak egin genituen Gipuzkoako Errepide Sailarekin eta Biala Orain plataformako kideekin. 2024ko urtarrilean, lehen bilera izan genuen Maria Ubarretxena diputatuarekin, eta bertan aurkeztu genuen udal teknikariekin prestatutako txosten teknikoak. Txosten horretan jasotzen dira egungo egoeraren azterketa eta proiektuaren inguruko ikuspegi berriak. Aldundiaren erantzuna, orain arte, ezezkoa izan da. Urte luzez hainbat aitzakia jarri dira: aurrekontu-mugak, bestelako lehentasunak, edo

jatorrizko proiektuaren zaharkitzea. Ez da borondate politikorik egon saihsbidearen auziari irtenbide bat emateko. Gure aldetik prestutasuna azaldu dugu proiektua gaur egungo egoerara egokitzeko, eta badakigu orain kostuak handiagoak direla. Hala ere, ezin da onartu herritarren beharrei eta segurtasunari uko egitea etengabe "ez da momentua" esanez. Urteak daramatzagu zain, erantzunak behar ditugu. Horregatik, eskaera argia egin genuen: proiektua berraztertu zezatela eta egingarria izan daitekeen bertsio bat lantzeko konpromisoa har dezatela.

Lehen bileratik jaso genuen erantzun proposamen bat, baina ez zuen arazoa konpontzen; besterik gabe, arazoa lekuz aldatzen zuen.

“**Herritarren beharrak erdigunean jarrita ari gara lanean; erronkak handiak dira, baina konfiantzaz eta elkarlanean ari gara Zizurkil hobe bat eraikitzen.**”


Argi eta garbi adierazi genien proposamen hura ez zela egokia, eta teknikoki justifikatuta azaldu genuen zergatik ez zen bideragarria. Ulertzen dugu proiektu integral bat garatzeak denbora eskatzen duela, baina, hori kontuan hartuta, behin-behineko neurri eraginkorrak hartzea eskatu genuen herritarren segurtasuna bermatzeko: biondak, semaforoak, argitutako eta igotako zebraideak, biribilguneen margoketak... Gidariekin argi ikus dezaten herrigunean daudela.

### Zizurkilgo segurtasuna hobetzeko eskaera zehatzak egin dizkiozue Aldundiari. Erantzunik jaso al duzue?

Otsailean bigarren bilera eskatu genuen, eta bigarren txosten bat aurkeztu genien Felix Urkola foru diputuari eta Mikel Uribeberria teknikariari. Ordutik erantzunaren zain gaude. Ez dugu ezezkorik jaso, baina ekintzak behar ditugu. Saihsbidea gure lehentasuna bada ere, bitartean herriaren segurtasuna hobetzeko neurriak eskatzen jarraituko dugu.

### Bien bitartean, Bulandegiko eremuan lanak egiten ari zarete. Noiz hasiko da hurrengo fasea?

Irisgarritasuna eta segurtasuna dira gure lehentasunak. Horixe da Bulandegi inguruko lanen ardatza: kale seguru eta erosoagoak sortzea. Irisgarritasun planaren lehen zatian oinezkoentzako hobekuntzak egin dira biribilgune inguruan, eta Elbarrenako festen ondoren hasiko da bigarren zatia. *Kaixoko* etxearen parean espaloia berria egingo da eta *Pasus-Berri* etxearen aurrealdea egokituko da espaloia zabaltzeko. Lanek 303.000 euroko aurrekontua dute eta urtea amaitzerako bukatzea aurreikusten da.



### Baserrien segregazioaren inguruko eskaera ere jaso zenuten...

Bai. Herriguneko bizilagunen eskaerei erantzunez, helburua da landa lurretan dauden baserrietan, Jaurlaritza-aren dekretuaren arabera eta baldintza jakin batzuk betez, segregazioak ahalbidetzea. Udalak konpromisoa hartu du legealdi honetan pausoak emateko eta aurrekontuak eskatu ditugu. Prozesu konplexua eta luzea izango da, sakoneko azterketa eskatzen du, baina uste dugu herritarrek egindako eskaera bati erantzutea dagokigula.

### Feminismoa eta euskararen sustapena indartzea ere helburu duzue. Zein urrats eman dituzue?

Ikuspegi feminista gure eguneroko jardunean txertatuta daukagu, eta transbertsalki jokatzeko dugu, betaurreko moreekin. Euskararekin gauza bera gertatzen da: gure egunerokotasunaren parte da, naturaltasunez egiten dugu.

laz euskara plan berria onartu genuen, barne erabilerrako nahiz herri mailako helburu argiekin. Aldi berean, kontuan hartu behar da gaur egun euskararen aurkako oldarraldi batean gaudela, eta testuinguru horretan, gure jarduna ez da erabilerrara mugatzen: hizkuntza eskubi- deen defentsa eta euskararen normalizazioaren aldeko jarrera aktiboa izatea ere funtsezkoa da guretzat.



## Egindakoez aritu gara. Zein proiektu gelditu dira egiteke?

Egiteke geratu den proiektu nagusietako bat Plazaetxe-berriko eraberritzea da. Europako funtsetatik etorritako dirulaguntza baten bidez gauzatu nahi genuen, baina inbertsioa laguntza baino hamar aldiz handiagoa da. Ez da nahikoa. Hala ere, ez dugu proiektua erabat baztertu. Garatzen jarraituko dugu, bideragarri bihurtzen den heinean.

## Urte erdi gelditzen zaio 2025ari. Zein lan jarriko dira martxan urtea amaitu aurretik?

Urte amaierarako Zubiondon etxebizitzak eraikitzen hasiko dira eta Zubimusuko zubitik paper fabrikako autobus-geltokiraino urbanizatuko da eremua: aparkaleku berriak, espaloi zabalagoak... Argiztapena eta ur-hornidura ere hobetuko dira. Promozio librea da, baina herriarentzat garrantzitsua. Halere, hutsuneak hor jarraituko du; babestutako etxebizitzaren beharra baitago.

Atxulondo eraikina energetikoki jasangarriago egiteko lanak ere laster hasiko dira. 150.000 euroko dirulaguntza jasoko dugu. Bestalde, Pagamuñoko igogailuko kabina berrituko da. Zaharkituta dago eta premiazkoa da aldatzea.

Hezkuntzan, Otaño Eskolako instalazio elektrikoa oso zaharkitua dago eta guztiz berritu beharko da. Dirulaguntzak eskatu ditugu, baina lanak faseka egin beharko dira, erai-kina handia baita. Bestalde, uda honetan Mendigain eskolan igogailua jartzeko asmoa zegoen. Gure aldetik egin beharreko guztia egin dugu, obra-baimenak prest zeuden. Hezkuntza Sailaren eskumena da, eta jakinarazi berri digute obren esleipena hutsik geratu dela. Beraz, zoritxarrez, ezingo da aurten gauzatu.

Herriko argiteria LED teknologiaz berritzen ari gara, eta argiztapen gutxiko eremuetan argi gehiago jarri dugu puntu beltzak saihesteko. Halaber, Villabonarekin oinezkoen zubia berritzeko konpromisoa hartu dugu. Aurrekontua eskatu da, baina uste baino garestiagoa da. Epe laburrean gauzatzeko ahalegina egingo dugu.



## La legislatura en breve

Hemos llegado al ecuador de la legislatura y al mirar atrás la valoración es muy positiva. Nos comprometimos a desarrollar varios proyectos entre 2023 y 2027, y estamos trabajando en ello según lo previsto en el plan estratégico.

Entre los proyectos más destacados están la **renovación de los parques de Aristegi, Ugare y Kuttuna**, priorizando la seguridad de la infancia. Creamos **nuevos aparcamientos en Buztinbailara** y redirigimos parte del tráfico desde Teodoro Hernandorena. También resolvimos el problema del **agua en Fraisoro** y seguimos mejorando caminos municipales. En **comunicación** tenemos nueva web, más redes sociales y hemos digitalizado el boletín "Zer Ote", reduciendo papel. Quienes no tienen acceso digital pueden informarse en los edificios municipales.

Uno de los grandes retos es **la variante**: la carretera cruza el pueblo y soporta 13.000 vehículos semanales, muchos pesados. En 2023 retomamos el diálogo con la Diputación y en enero de 2024 presentamos un nuevo informe. Pedimos un estudio actualizado y una solución viable, ya que los proyectos anteriores están desfasados y los costes han subido. También solicitamos medidas provisionales urgentes: badenes, semáforos, pasos iluminados, señalización... porque la inseguridad en el centro es real. En febrero hubo otra reunión con buena disposición, pero faltan hechos.

En paralelo, intervenimos en **Bulandegi** para crear calles más accesibles. Tras finalizar la primera fase, en septiembre comenzará la segunda (nueva acera frente a *Kaixo* y ampliación de la de *Pasus-Berri*), con un presupuesto de 303.000 €. Luego actuaremos desde la escuela Otaño hasta Bulandegi 17.

También hemos recibido peticiones de **segregación de caseríos** en suelo rural. Es un tema complejo pero ya hemos solicitado presupuestos para iniciar el proceso conforme al decreto del Gobierno Vasco.

El **feminismo** y el **euskera** son ejes transversales. Aprobamos un nuevo plan de euskera con objetivos claros. En un contexto de ataques, defendemos su uso y los derechos lingüísticos.

Hasta finales de año se impulsarán **nuevos proyectos**: construcción de viviendas en Zubiondo y urbanización del entorno hasta la parada de la papelera (aparcamientos, aceras, iluminación...). Renovaremos la **instalación eléctrica de la escuela Otaño**. También estamos renovando el alumbrado público con tecnología LED y colocando más luces para evitar puntos negros. En verano el Departamento de Educación iba a instalar **un ascensor en la escuela Mendigain** pero nos ha informado de que la licitación ha quedado desierta y no podrá hacerse.

Uno de los proyectos pendientes es la **renovación de Plazaetxeberri**. Queríamos llevarla a cabo con fondos europeos, pero la inversión necesaria es diez veces mayor. Aun así, no lo descartamos y seguiremos desarrollándolo según su viabilidad.

Por último, nos hemos comprometido a **renovar el puente peatonal** con Villabona. Aunque el presupuesto es alto haremos lo posible por llevarlo a cabo. Pronto comenzarán las obras para mejorar la eficiencia energética del edificio Atxulondo, gracias a una subvención de 150.000 euros. Seguiremos mejorando Zizurkil, poco a poco, pero sin parar.



# Landa-lurretako partzelen mugak digitalizatzeko lanak, abian

## 3. poligonoko lursailen mugak argitu eta digitalizatzeko proiektua hasi du Udalak

Zizurkilgo Udalak Geograma topografia enpresa kontratatu du udalerriko 3. poligonoko landa-lursailen mugen digitalizazioa egiteko. Proiektuaren helburua da lursailen mugak GPS teknologiaren bidez zehaztasunez finkatzea eta katastro-datuetan dauden akatsak zuzentzea.

Azken urteetan, lur-jabeek edo haien oinordekoek informazio zehatza ez izateak nahasmena eta desadostasunak eragin ditu mugetan, eta horrek zaildu egin du bai jabetza-eskubideen kudeaketa, bai ingurumenaren babesa. Egoera hori hobetzeko, Udalak proiektua abiatu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdearen dirulaguntzarekin.

Lehen fasean, 3. poligonoko 209 lursail mugatuko dira, guztira 251 hektarea, eta 71 lur-jabe daude inplikaturik. Udalerriko landa-lurren hedadura zabalera dela eta, aurten 3. poligonon hasiko dira lanak, eta 2025-2026 ekitaldian 2. poligonora zabalduko dira, 234 partzela eta 190 hektareatar.

## Digitalización de terrenos

El Ayuntamiento de Zizurkil, con apoyo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ha iniciado un proyecto para digitalizar los terrenos rurales del polígono 3, para delimitar con precisión las parcelas mediante GPS y corregir errores catastrales.

Se delimitarán 209 parcelas con la implicación de 71 propietarios/as. En febrero se hizo una reunión informativa y se repartieron folletos para revisar los límites. El 98 % ha entregado la documentación firmada.

Ahora los propietarios/as deberán limpiar y marcar los límites para que la empresa haga mediciones. Al finalizar, se les entregarán los planos con coordenadas, superficies y límites oficiales. El proyecto facilitará la identificación de parcelas y la gestión administrativa.



**%98**  
parte-hartzea

### PROIEKTUAREN ONURAK

- Lursailen kokapen zehatza katastroan
- Titularitate-akatsak zuzentzeko aukera
- Etorkizuneko tramiteak erraztea
- Mugarriak behin betiko finkatzea

Otsailan informazio-bilerak egin ziren jabeekin, eta bakoitzari bere lursailaren mugak adosteko liburu bat eman zitzaion. Parte-hartzea oso handia izan da: lur-jabeen %98k dokumentazioa osatuta eta sinatuta aurkeztu du. Kasua eredutzat jo dute Udalak eta Aldundiak. Gainera, planoak eta bestelako dokumentuak ere aurkezteko aukera izan dute.

Lur-jabeek mugak garbitu eta mugarriak markatu dituzte neurketak errazteko. Geogramako teknikaria jabeekin jarri da harremanetan GPS bidezko neurketak egiteko. Behin lanak eginda, jardunaldi batean aurkeztuko dira emaitzak: partzela bakoitzaren plano zehatza, GPS koordenatuak, mugak eta hartu-agiria barne.

Proiektuak abantaila ugari ekarriko dizkie lur-jabeek: lursailak zehatz-mehatz identifikatu eta jabetza-akatsak zuzendu ahal izango dira, mugarriak ofizialki finkatuz eta etorkizuneko tramiteak erraztuz.

# Ongi etorri Zizurkilera!



Otsailaren 1ean, Zizurkilgo Udalak harrera ekitaldi berezia antolatu zuen 2024an herrian erroldatu ziren atzerritarrei ongietorria emateko. Aurtengoa izan da lehen edizioa, eta aurrerantzean urtero ospatuko da, otsailako lehen larunbatean. Ekimenak herriko baliabideak ezagutaraztea eta etorri berrien integrazioa erraztea du helburu, bizikidetzak sustatzeko asmoz.

Atxulondo kultur etxean elkartu ziren udal ordezkariak, Tolosaldea Garatzeneko migrazio teknikaria eta hainbat gonbidatu. Zizurkil eta Tolosaldea aurkeztu, eta bertaratu zirenei herriko baliabideen gida bana banatu zitzaizkien. Euskara sustatzeko asmoz, hiztegitxo bat eta Meloren euskarazko ipuin bana ere jaso zituzten, hizkuntzarekin lehen harremana errazteko. Euren esperientziak partekatu eta zalantzak argitu ostean, bisita gidatu bat egin zuten herriko gune nagusietara. Jardunaldia mokadu goxo batekin bukatu zuten, giro atseginean.

Zizurkil herri anitza da, eta jatorri zein kultura ezberdinetatik etorritako bizilagun asko hartzen ditu. Ekitaldi honek aniztasun hori aitortu eta balioan jartzen du, elkarbizitza eta integrazioa sustatzeko bidean urrats garrantzitsuak ematen jarraitzeko asmoz.

Paula y Nahuel, argentinos, llegaron a Zizurkil tras vivir en varios lugares, buscando un lugar donde sentirse en casa. Nahuel es informático y Paula, filóloga y editora. Buscaban una vida más tranquila y conectada con la naturaleza, y encontraron en Zizurkil ese lugar especial. Fueron recibidos con calidez y apoyo, y agradecen la bienvenida organizada por el Ayuntamiento, que les hizo sentir parte de la comunidad. Ahora valoran mucho su vida en el pueblo: la biblioteca, el trato cercano de los comerciantes y vecinos, el entorno natural y la sencillez del día a día. Se sienten afortunados de vivir en un lugar con una cultura fuerte y vínculos con Argentina, y por primera vez en mucho tiempo, quieren quedarse y aportar al pueblo.

## ¡Bienvenidos y bienvenidas a Zizurkil!

El 1 de febrero, el Ayuntamiento de Zizurkil celebró un acto de bienvenida para las personas extranjeras empadronadas en 2024. Es la primera edición de una iniciativa que se repetirá cada año para facilitar la integración de las personas recién llegadas, dar a conocer los recursos del municipio y reforzar la convivencia y la diversidad cultural.

Davit, chef nacido en Tiflis (Georgia), y su esposa Marta, madrileña, viven en Zizurkil desde 2023. Tras formarse en el Basque Culinary Center y trabajar en varios restaurantes, decidieron instalarse en Zizurkil buscando un lugar con identidad de pueblo y naturaleza, ideal para criar a su hija Abril, que con 8 años habla cinco idiomas, incluido el euskera. Valoran mucho la acogida recibida, el entorno natural y la comunidad local, así como la bienvenida organizada por el Ayuntamiento, que les ayudó a sentirse parte del pueblo.

## DAVIT NARIMANISHVILI

### Georgia

Tbilisin (Georgia) jaio nintzen, eta Marta, nire emaztea, madrildarra da. Iazko abuztutik bizi gara Zizurkilen. Chef-a naiz, eta Basque Culinary Centerreko Master batek ekarri ninduen Donostiara. Ordutik, sukaldari ezagunekin lan egin dut eta Georgiako gastronomia-programa batean epaimahaikide izateak Kevri, nire jatetxea, irekitzera bultzatu ninduen. Bertan georgiar eta goi-mailako sukaldaritza uztartzen ditut. Gaur egun, Barbarestan (Tbilisi) eta Nunuka Madrid jatetxeetako Brand Chef ere banaiz.

Martak eta biok Bartzelonan ezaigutu genuen elkar duela 14 urte. Urte luzez urrutiko harremana izan genuen lanagatik, baina azkenean Euskal Herrira etortzea erabaki genuen: berak lanagatik, nik formatzen jarraitzeko. Bi urtez izan ginen Alegian eta oso lotura berezia sortu genuen Euskal Herriarekin. Gure alaba hemen izatea erabaki genuen.

Lana tarteko, 2017an alde egin behar izan genuen, baina argi genuen itzuliko ginela. 2023an lortu genuen. Irurara joan ginen, baina faltan botatzen genuen zerbait: komunitate-sentsazioa. Herri-izaera gordezten zuen eta naturara hurbiltzen gintuen leku baten bila geunden, eta horrela iritsi ginen Zizurkilera.



Gure alaba, Abril, Alegian jaio zen. Zortzi urte ditu eta bost hizkuntza hitz egiten ditu: gaztelania, katalana, ingelesa, georgiera

eta, orain, euskara ere bai, erraztasun osoz. Urtebetean lortutako maila ikusita, harro gaude eta helduon ikaskuntza bultzatzeko adibide da. Marta ere euskara ikasten ari da.

Denbora gutxi daramagu hemen, baina gehien estimatzen duguna jendea da, naturarekiko harremana eta gure alabari eskaini diezaiokugun giro osasuntsua. Beso zabalik hartu gaituzte, baita erakundeek ere. Udalak antolatutako ongietorria ideia bikaina iruditu zitzaigun: zerbitzuak edo egoera berean dauden pertsonak ezagutzea eta komunitatearen parte izateko sentsazioa sortzea garrantzitsua da.

67  
Atzerritar  
erroldatu 2024an

## PAULA AGOSTINA MANNINO ETA FACUNDO NAHUEL PEILLAT

### Argentina

Paula eta Nahuel gara, argentinarak. Urteak daramatzagu munduan barrena: Buenos Aires, Irlanda, Katalunia, Madril... beti etxe sentituko genuen leku baten bila. Nahuel informatikaria da; ni, berriz, filologoa eta liburu editorea. Dena ondo badoa, uda honetan liburu denda txiki bat irekiko dut: aspalditik amestu dudana proiektua da.

Hiriaren erritmoaz nekatuta, bizimodu lasaia nahi genuen, naturarekin konektatuagoa. Maiteminduko gintuen leku baten bila genbiltzan. Eta nomada izaten jarraituko genuela uste genuenean, Zizurkilera iritsi ginen. Zazpi hilabete daramatzagu hemen eta, azkenean, gure lekua aurkitu dugula sentitzen dugu.

Hasieratik hunkitu gintuen jendearen hurbiltasunak, berotasunak eta

aniztasunarekiko jakin-minak. Ez da erraza kanpotik etorritako sustraitzea, baina hemen goxo hartu gintuzten; lehen urtezahar egunean etxeetako ateak ireki zizkiguten eta ez ginen bakarrik sentitu.

“  
Zizurkil es nuestro hogar. Valoramos muchísimo lo que encontramos acá.”

Otsailean, Udalak antolatutako harrierak ongietorria are bereziagoa egin zuten. Askok gustatu zitzaigun: beste inon ez gaituzte horrela hartu. Irtsi berri diren beste lagun batzuekin tarte atsegina partekatu genuen.



Zizurkil da gaur gure etxea. Askok baloratzen dugu aurkitu duguna: liburutegi ederra, jende interesgarria, izenez agurtzen zaituzten merkataria, auzokide eskuzabalak, eta guk estimatzen dugun bizimodu xumea.

Zoriontsu eta eskertuta gaude hemen bizitzeagatik. Lotura ugari ditugu Argentinarekin, eta hobeto ulertzen ditugu orain. Hemen egoiteak ekarpenak egiteko, ikasteko eta parte izateko gogoia ematen digu. Eta lehen aldiz, denbora luzean, ez dugu mugitu nahi. Hemen geratu nahi dugu.

# Eskola txikien festa

2026ko ekainaren 14an

Mendigain ikastetxeko guraso elkarteak hasi da lanean datorren urteko ekainaren 14an izango den festa prestatzeko. Herritar ugariren laguntza beharko da ordea jaia aurrera ateratzeko.

1998an izan zen Zizurkil en azken aldiz Gipuzkoako Eskola Txikien Festa. 27 urte geroago, datorren urtean osera hartuko du ehunka lagun batzen dituen festa. Aurtengoa Ezkion izan da ekainaren 8an, eta bertan hartu dute lekukoa zizurkildarrek.

Mendigain ikastetxeko komunitatea aurrez hasia da ordea lanean. Logoaren lanketa egiten ari dira ikastetxean bertan eta arropen batzordea jada lanean ari da. Beste batzordeak ere uda aurretik osatuta izatea da helburua. Era berean, irakasleek, gurasoek eta Udalak koordinazio batzorde bat sortu dute urte osoan zehar maiztasunez bilduko dena.

Ikasturte berriarekin batera, herritarrei, eskola txikian ibili diren ikasle ohi zein guraso izandakoei, egingo zaie deia lanera batzeko. Herri eta auzo txikiak bihotza dira eskola txikiak. Hori aldarrikatuko da elkarlanean 2026ko ekainaren 14an.

## Escuela, fiesta, comunidad

Zizurkil acogerá el 14 de junio de 2026 el Festival de las Escuelas Pequeñas. Después del verano se hará un llamamiento a toda la ciudadanía de la última vez. La comunidad de Mendigain trabaja ya en la organización, con la ayuda de familias, profesorado y el Ayuntamiento. Tras el verano se hará un llamamiento a toda la ciudadanía para sumarse a la organización de esta gran fiesta que pretende reivindicar su importancia dentro del pueblo.



# Zizurkil, hondakinen kudeaketa eraginkorra sendotzen

Zizurkil jasagarritasunaren aldeko bidean pauso sendoz ari da aurrera egiten. Azken urteotan, hondakinen kudeaketa lortutako emaitza onak agerian uzten dute herritarren inplikazioa eta Udalaren konpromisoa. Gaur egun, Zizurkil gaikako bilteta tasa altua duten udalerrien artean dago (%70), eta hori ez da kasualitatea: martxan dagoen bilteta-sistema eraginkorrari eta herritarren parte-hartze aktiboari esker lortu da.

## Tasa egokitzapena, Europako legetara egokitzeko

2024ko azaroan, Zizurkilgo Udalak hondakinen tasa egokitzeko onartu zuen Europar Batasuneko araudi berria betetzeko. 2025etik aurrera, legeak ezartzen du udal-hondakinen bilteta ezin daitekeela defizitarioa izan, eta, hortaz, herritarrek ordaindu behar dituzte bilteta eta kudeaketa kostuak osorik.

Zizurkilgo Udala sistema eraginkor batean inbertitzen ari da eta bertako hondakinen kudeaketa eredu dagoen onena dela sinetsita, bide horretan jarraituko du lanean. Lege berriak zortzez besteko tasa kobratzeko betebeharra ezartzen die udalei, eta horretarako modurik eraginkorrena hondakinak ondo bereiztea eta nork bere erabileraren arabera ordaintzea da.

## Hondakinak ongi bereizteak badu ordaina

Udalak hiru bilteta sistema eskaintzen ditu hondakinak modu jasagarrian kudeatzeko:

1. Atez ateko bilteta
2. Etxeko konposta
3. Auzo konposta

Konpostaje-sistemak erabiltzen dituzten familiek tasa murriztuak dituzte. Era berean, hondakinak ez bereizteak kostu gehigarria dakar, eta kostu hori bere gain hartu beharko dute behar bezala birziklatzen ez duten herritarrek, "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioa aplikatuz.

Udalak zein Tolosaldeko Mankomunitateak sistemaren erabilera egokia bermatzeko jarraipen zorrotza egiten dute.

## Norabide egokian, herritarrekin batera

Zizurkilgo gaikako bilteta datuak eta herritarren parte-hartze aktiboak argi adierazten dute bide onetik goazela, baina erronka nagusi bat dugu: sortzen dugun hondakin kopurua murriztea.

Iaz, 1.803,8 tona hondakin sortu genituen; egunean 0,74 kg biztanleko. Hondakin horien %70 gaika jasotzen da, eta %30 biohondakin edo materia organikoa da. Hondakin organiko horiek konpostatzera bideratzen ditugu: konpostaje plantetara, auzo-konpost gunetara eta etxeko konpostajera. Horrela, hondakin hori ongarri bihurtzen dugu eta lurzorura itzultzen da, naturaren zikloa osatuz eta ingurumenaren aldeko urrats eraginkorra eginez.

Udaletik eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartzen duten herritar guztiei eta animatu behar bezala birziklatzen ez duten horiek, norabide horretan urratsak eman ditzaten.

## 2025 HONDAKIN TASAK

Tasa orokorra  
45,00 €

Etxeko konposta  
22,50 €

Auzo konposta  
33,50 €

Etxebizitza hutsak  
25,00 €


Hondakinak ez bereiztea  
90,00 €

## Consolidando un modelo eficaz

Zizurkil avanza hacia un modelo de gestión de residuos más sostenible. Gracias al sistema de recogida eficaz y a la implicación de las personas que compostan tienen tasas reducidas, mientras que quienes no reciclan pagarán más, aplicando el principio de "quien contamina, paga".

la normativa europea, que exige que la recogida y gestión no sean deficitarias. Separar correctamente los residuos que compostan tienen tasas reducidas, mientras que quienes no reciclan pagarán más, aplicando el principio de "quien contamina, paga".


## Gaikako bilteta, urtez urte



“**%70eko gaikako bilteta hiri hondakin osoarekiko**”

## Hondakinak baliabide bihurtu!

Gaur egun, 170 etxebizitzak hartzen dute parte etxeko konpostaje edo auzo-konpostaje. Zuk ere izena eman nahi duzu? Urte guztian zehar egin dezakezu.



# MEMORIA DANTZAN!



Zizurkil, 1963

## 📷 Zer kontatzen du irudi honek?

Ezagutzen duzu tokia?  
Eta aurpegi horiek... ezagun egiten zaizkizu?

Erantzunak badituzu, partekatu sare sozialetan eta hartu parte gure zozketa sorpresa!

¿Reconoces el lugar?  
¿Y esas caras... te suenan?

Si tienes las respuestas, compártelas en redes y participa en nuestro sorteo sorpresa.



#ZizurkilMemoriak

## HARPIDETU ZER OTE? DIGITALERA

### JASO ZIZURKILGO AGENDA KULTURALA ZURE BUZOIAN

#### 1. Emailez

Idatzi [bulegoa@zizurkil.eus](mailto:bulegoa@zizurkil.eus) helbidera zure izen-abizenak, emaila eta telefonoa, agenda emailean jasotzeko.

#### 2. Whatsapp kanalean

#### 3. Webgunean

Kontsultatu [zizurkil.eus](http://zizurkil.eus) webgunean hileroko agenda.



Lege  
gordailua  
SS-1118-2011

943 69 10 12  
[zizurkil.eus](http://zizurkil.eus)

